

Nélida Zaitegi, Presidentea  
Xabier Aizpurua  
Juan Carlos Jauregui  
M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren  
Ismael Redondo  
Usoa Urbieta  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

## 18/04 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko maiatzaren 24ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: hizkuntza normalizaziorako ULIBARRI programa arautzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.

### I.- AURREKARIAK:

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, euskararen irakaskuntzari buruzko bere II. Kapituluari, Jaurlaritzari eskatzen dio neurriak har ditzala euskara-giroa bermatzeko eta euskara ohiko adierazpide izan dadin barne- nahiz kanpo-jardueretan.

1996-97 ikasturtean, Hezkuntza Sailak hizkuntza normalizazioko 23 proiektu jarri zituen martxan esperimendu modura. Esperientzia horretatik abiatuta, 1997ko maiatzaren 8an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdi publiko bat egin zuen ikastetxeetan hizkuntza-proiektuak egiteko.

Ondoren, hizkuntza normalizaziorako Ulibarri programa arautu zen abenduaren 23ko 323/2003 Dekretuaren bitartez.

### II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek 4 kapitulutuan banatutako 25 artikulua, xedapen indargabetzaile bat, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat ditu.

I. Kapituluak (1 eta 2. artikulua) arauaren xedea eta aplikazio esparrua ezartzen ditu.

II. Kapituluak (3-14 artikulua) bi ataletan banatuta dago: 1. atalean (3-10 artikulua) programaren xedea, egitura eta betebeharrak lantzen dira.

Bigarren atalean (11-14 artikulua) Ulibarri programan sartzeko, jarraitzeko, programa uzteko eta programatik ofizioz botatzeko baldintzak ezartzen dira.

III. Kapituluak (15-23 artikulua) aipatzen du zeintzuk diren hezkuntza administrazioaren titulartasunekoak ez diren ikastetxe publiko eta pribatuei diru-laguntzak emateko Programaren ezaugarri orokorrak.

IV. Kapituluak programan sartzeko eta jarraitzeko eta diru-laguntzak emateko prozedurak jasotzen ditu.

Xedapen Iragankor bakarrak ezartzen du Dekretu hau indarrean sartzen denean ULIBARRI programan dauden ikastetxeek aurreko araudiarekin funtzionatzen jarraituko dutela hurrengo deialdira arte.

Xedapen Indargabetzaile bakarrak indarririk gabe uzten du hizkuntza normalizaziorako Ulibarri programa arautzen duen abenduaren 23ko 323/2003 Dekretua.

Azken Xedapen bakarrak esaten du noiz sartuko den indarrean dekretua.

### III. – BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Zioen azalpenean adierazten den bezala, 1996-97 ikasturtean 23 normalizazio proiektuekin hasi zen programa honek gaur egun bere baitan biltzen ditu hizkuntza normalizazioko proiektuak egiten eta garatzen dituzten 400 ikastetxe inguru.

Aurrekoa indargabetzen duen dekretu hau egin da beharrezkoa zelako kudeaketa arloko hobekuntzak egitea eta jardunbide berriak txertatzea. Era berean, beharrezkoa zen diru-laguntzen legeria berrira egokitzea.

Ulibarri programaren irismenari dagokionez, faltan bota dugu informazio gehiago jakiteko nola ebaluatzen den programa eta nolako inpaktua izan duen ikastetxeetako euskararen erabileran.

323/ 2003 Dekretuaren 19. artikulua dio “ULIBARRI programaren ebaluazio globala lau urterik behin egiten dela”. Ez dakigu ebaluazio horiek egin diren, eta egin badira emaitzak baliagarri izan diren dekretua aldatzeko.

#### **Artikulu berrizko oharrak:**

- 4. eta 5. artikulua ikastetxearen hizkuntza normalizazioko proiektuari eta jarraipen-batzordeari buruzkoak dira, baina ia ez zaio erreferentziarik egiten eskola-komunitateari.

4.1.d atalean haxe esaten da: *neurriek eragina izango badute eskola-komunitatean, komunitateak alde aurretik onartu behar ditu eta betetzeko konpromiso esplizitua hartu behar du.* Aldiz, artikuluetan funtzio bakarra ematen zaio Ordezkaritza Organo Gorenari, hau da,

ikastetxe bakoitzeko hizkuntza normalizaziorako batzordearen osaera finkatzea eta kideak izendatzea. Hala ere, proiektuaren 11 b) artikulua dio ikastetxe bat Ulibarri programan onartzeko agiri bidez frogatu behar dela ikastetxe horretako Ordezkaritza Organo Gorenak onartu duela proiektu proposamena.

Ikastetxeko Eskola Kontseiluak planari buruzko informazioa eta erabakimena izan behar lituzke, beharrezkoa baita denen lankidetzeta eta inplikazioa zeregin hori gauzatzeko. Halaxe dio indarrean dagoen dekretuak:

*4.2. artikulua: Hizkuntza normalizaziorako proiektua txertatzea ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, curriculum-proiektuan, hizkuntza proiektuan, ikasturteko plangintzan eta ikasturteko memorian.*

Horregatik proposatzen dugu artikulua honetan espresuki jasotzea bi alderdiak: Ordezkaritza Organo Gorenak onartzeko beharra eta plana ikastetxeko proiektuetan integratzeko beharra.

4.1 artikuluko a) atalaren idazkera nahasgarria da, eta argitzea proposatzen dugu: *“Hizkuntzaren erabileraren egoera aztertzea ingurunean bertan (diagnostikoa), ikastetxearen eragin-markoa hartuz lan esparrutzat”.*

- **5. artikulua:** aipatzen du zein den jarraipen batzordearen osaera. Batzorde horretan administrazioko ordezkariak baino ez daude (berrikuntzako zuzendaritza, eta NOLEGA eta Berritzeguneetako teknikariak).

Indarrean dagoen 323/2003 Dekretuan ere, *hizkuntza normalizazioaren alorrean itzala duten adituek* osatzen dute batzorde hori (*gutxienez bi eta gehienez bost*).

Kontseiluaren iritziz, interesgarria eta aberasgarria litzateke aukera hori mantentzea edo ikastetxeetako hizkuntza normalizazioko teknikariak batzordean sartzea.

Bestalde, 3. atalean *“ordezkaritza orekatua izango da”* dioen tokian, proposatzen dugu **“gizon eta emakumeen”** hitzak eranstea.

- **6.4 artikulua:** hizkuntza normalizazioko teknikari arduradunak izango duen ordu liberazioa zehazteko *“arauak”* jasotzen ditu.

6, B.c) atala ez da ulertzen, eta uste dugu argiago idatzi behar dela.

Enuntziatu orokorrago bat idaztea proposatzen dugu, deialdirako utziz zehaztaperen teknikoak. Bestalde, kontuan hartu beharko litzateke baremo horiek –eta 11. artikuluan jasota daudenak– ez liratekeela dekretuan bertan jaso behar, baizik eta deialdiaren Aginduan.

- **7.4 artikulua** dio beharrezkoa dela ordezkariak orekatua izatea hizkuntza normalizaziorako batzordea osatzean, hau da, **ikastetxeko genero desberdinen presentzia islatzea**, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluari jarraiki.

Legearen artikulua horrek dio emakume eta gizonen presentziak orekatua izan behar duela, eta proposatzen dugu idazkera horren arabera egokitzea.

- **8.5 artikulua** zehazten du ikastetxeko hizkuntza normalizaziorako batzordeko kide den arduradun teknikoak (HNAT) 90 orduko liberazioa soilik izango duela aitortuta.

Kontseiluaren iritziz, lantalde bat denez, kide guztiei aitortu beharko litzaieke ordu liberaziorako bat, eta halaxe zegoen jasota aurreko dekretuan (6.3 artikulua). Gainera, esplizituki adierazi behar da **prestakuntza- edo berrikuntza-jardueragatiko** aitortza dela, eta “*soilik*” terminoa ezabatu behar da, idazkera horrek ez baitu zentzurik.

Horregatik, indarrean dagoen dekretuaren idazkera mantentzea proposatzen dugu:

“3. – Programan parte hartzen duten ikastetxeek ondoko aitortza izango dute, prestakuntza- edo berrikuntza-jardura gisa: Hizkuntza normalizaziorako arduradun tekniko izateak 90 orduko aitortza izango du; Hizkuntza Normalizaziorako Batzordeko kide izateak, berriz, 60 orduko aitortza, kide hori ikastetxeko irakasle baldin bada”.

- **10. artikulua** hizkuntza normalizazioko proiektuen lau urtean behingo ebaluazioari buruzkoa da, eta aztertuko diren alderdiak aipatzen ditu. Halere ezartzen du sailburuordearen Ebazpen bidez *onartuko direla aztertu beharreko alderdi zehatzak eta ebaluazio irizpideak*.

Uste dugu alderdi horiek Dekretu honetan zehaztu behar direla, nahiz eta gero Ebazpenean ebaluazio irizpideak zehaztu.

Faltan bota dugu normalizazio planean (4.1.c artikulua) jasotako helburuak zein neurritaraino bete diren adierazten duen erreferentzia bat. Jakin beharra dago aurrerapenik lortu den ala ez hartutako neurriak mantentzeko edo birformulatzeko.

g) atalari dagokionez (*ikasleen batzorde espezifikoa badagoen ala ez*), uste dugu ezen neurria baikortzat jotzen bada, aipu bat egin beharko litzatekeela 5. artikuluan ikasleen azpi-batzordeak egiteko aukerari eta horien xedeari buruz.

Ez da ulertzen zeri buruzkoa den k) atala (*arloari eginiko ekarpenak*), aurretik ez baitira aipatzen arloak, baizik eta aplikazio esparruak.

Sarreraren esan bezala, proposatzen dugu 323 Dekretuko 19. artikulua mantentzea, Programaren ebaluazio globalari buruzkoa.

- Akats bat aurkitu dugu **11. artikuluan**, onarpen deialdiari buruzko 24. artikulua aipatu behar litzatekeelako, eta ez 23. artikulua.
- **18. artikuluko** bigarren paragrafoak, diru-laguntza emateko prozedurari eta zenbatekoari buruzkoak, esaten du diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatu dela *irakaskuntzako funtzionario kidegoen oinarritzko ordainsarien eta ordainsari osagarrien arabera*.

Planteamendu hori ez zaigu egokia iruditzen. Ikastetxeek ordu libreak eman behar dizkiete irakasleei, eta kalkulu zuzen bat egin behar da diru-laguntza dedikazio orduetara egokitzeko.

Horregatik, egokiagoa iruditzen zaigu indarrean dagoen Dekretuko 17. artikuluan jasota dagoen proposamena: urteko ordainsari gordin gisa honako hau hartuko da: Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Irakasmila Ertainetako zuzeneko irakasleen ordainsarien batez besteko aritmetikoa, **indarrean dauden hitzarmenetan** oinarrituta.

Azkenik, zuzendu beharreko desberdintasun batzuk daude euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean, adibidez:

- 4.1) atalak dio *“los datos serán aportados segregados por sexo”* eta erreferentzia egiten dio 4/2005 Legearen 16. artikuluari; euskarazko bertsioan, berriz, kontrakoa dago jasota *“datuak ez dira sexuaren arabera banatuko”* eta erreferentzia egiten dio seigarren azken xedapenari, nahiz eta ez den gai horri buruzkoa.
- 7. artikulua enuntziatua desberdina da euskaraz eta gaztelaniaz; gainera, gaztelaniazkoan ez dira aipatzen ikastetxearen onurak.



Orobat aholkatzen dugu gaztelaniazko bertsioa berrikustea (hitz errepikatuak daude, zenbait preposizio falta dira, komunztadura arazoak daude...), organo eta batzorde desberdinak izendatzeko modua bateratzea eta testua berrikustea genero ikuspegia kontuan hartuta.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 25ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA